

SEI IZAR BERRI

Mundu honetan bada agertzen eta desagertzen den gauza asko.

Eguzkiak goizero agurtzen gaitu, baina berehala izkutatzen da, auskalo non. Hodeiak ere joan-etorri etengabea den dantzan ibiltzen dira. Eta haizearen menpe bizi diren udazkeneko hostoek ere badute egon eta segidan desagertzeko trebetasun berezia. Baina guzti hauen artean bada sekula desagertuko ez den andere nagusi bat: iraunkorra den MENDIA eta honek, ama berri bat bailitzan, bere magaletan hartu ditu haur berri hauek. Eta haurrok, mendiko haur direnez, ama bezain iraunkor bihurtu dira.

Zuen lagunak

(1995.eko Urtarrilaren 12an irakurritakoa sei mendizale gazteen omenez Bilboko Karmelo plazan).

Sei egun lehenago, Urtarrilak 6an, elur-jausi batek harrapatuta desagertu ziren Huescako Pirineotan Santutxuko sei mendizale gazte: Ikerne Martitegi Etxebarria eta Ezker Aldai Izagirre (17 urtekoak), Asier Gorrotxategi Azanza, Ibai Garai Landa eta Arrizen Gonzalez Garai (22 urtekoak), Mikel Epelde Palenzuela (23 urtekoa).

Gabonetako oporrak aprobetxatuz, Santutxuko bi talde, Huescako Sallent del Gállego herritik hurbil dagoen La Sarra ur-

tegitik gora, Respomusoko aterpean (2.160 m) elkartu ziren Urtarrilaren 3an, hurrengo egunean Balaitus (3.146 m) tontorrera igotzeko asmotan. Gazteagoen seikotea (17-18 urte) eta 22-23 urtetako laukotea bakoitza bere aldetik joanak ziren Pirioneo aldera, gazteagoak autostop eginaz eta zaharragoak heuretariako baten kotxean. Aipaturiko aterpean lo egin ondoren, lortu zuten, bai, Balaituseko gailurra zapaltzea Urtarrilaren 4ean, bik izan ezik, eta Gasteizeko beste bost gazterekin batera. Eguraldi ederra lagun, pozez zoraturik agertzen zaizkigu puntan ateratako argazkietan. Honelako gailur eder eta zail bat negu gorrian igotzeak ematen dio mendizale bati halako aparteko zirrara. Egun bat arinago etxera itzuli ziren lagunek gogoan dituzte Ezkerren hitzok: "Ez dut gauza politagorik ikusi bizitza osoan". Arrizenek ere bihotzean zuen arantzaxo bat kendu zuen, orduarteko ekinaldietan ez baizuen lortu Balaitus igotzea.

Gazteenetanko lau, biharamunean, la Sarrara jeitsi ondoren aparteko arazorik gabe, Bilbora bihurtu ziren. Beste seiak aterpeko epeltasunean geratu ziren, bertan egun bat lasai botatzeko, atsedena hartuz, kartetan eginaz,... beste mendi batzuk igotzeko planak eginaz. Mendiko aterpetako goxotasuna eta batez ere neguan, espenentzia paregabea da mendizale batentzat.

Urtarrilaren 5etik 6rako gaua oso txarra izan omen zen: elurra, haizea, hotza... Urtarrilaren 6an, goizeko 9,30 ak inguruan, aterpetik irten ziren baina... bidean elurrak mendian gorde zituen betirako. Mendiaren goxotasuna eta garraztasuna biak batera. Urtarrilaren 7an, arratsaldean, gurasoak arduratzen hasi ziren, astebururako bihurtzeko asmoa baizuten. Deitu bati, beste-ari, hara, hona... Kezka! Larritasuna! Sallent-era hurbildu ziren senitarteko batzuk, erreskate arduradunekin harremanetan jarri eta zer egin zitekeen aztertzeko.

Urtarrilaren 8an, 11etan hasi zituzten aurkitze-lanak, arratsaldeko 6,30ak aldera amaituaz. Urtarrilaren 9an, elur-jausi baten inguruan (1900 metroan eta Frondiellas gailurren oinarrian) motxila apurtu bat DNI bat eta eskularru batzuk aurkitu zituz-



ten. Susmo txar guztiak egia triste baten itxura hartzen hasi ziren berehala. Urtarrilaren 10ean, goizerdian, Arrizen, Ikeme, Ibai eta Ezkerren gorpuak aurkitu zituzten. Arratsaldeko 3,30etan lanak bertan behera utzi zituzten eguraldi txarragatik.

Hurrengo egunetan lanean jarraitu arren, beste bien gorpurik ez zuten aurkitu. Martxoaren 12an agertu zen Mikel Epelderen gorpua, elur-jausitik bi kilometrotara "Aguas Limpias" errekan. Maiatzaren 22an aurkitu zuten Asier Gorrotxategirena, lehenengo lauak azaldu ziren inguru berebean.

MENDIA MAITE ZENUTEN ...

MENDIRA JOAN ETA ...

BETI ENTZUNGO DUGU ZUEN IRRINTZIA.

Bilboko Santutxu auzokoen artean sei mendizale hauen heriotzak negar-malko ugari isuri zituen.

Bostek Karmelo ikastolan ikasi zuten 14 urterarte. Gurasoak ere elkarren artean ezagunak ziren. Mendizaleak gazteak ziren eta lagun talde berdinsua zuten. Auzo berdinean bizi ziren. Horregatik ez da harrizkoa santutxutarren artean sortu zuen mina.

Urtarrilaren 11ean heldu ziren Santutxura lau gorpuak. Ez ahazteko moduko momentua izan zen hura: euria goitik behera, hotz eta haize zakarra,... eta, hala ere, alde batean eta bestean zeuden ehundaka pertsonak, ikurrin eta txalo artean, hartu zituzten lau gorpuak eta Karmelorraino lagundu. Gorputzak dardarka, bihotzak gainezka, lehertzeko zorian sentitu genituen. Bihamuneko arratsalderarte auzoko hainbat jenderen bisita jaso zuten. Auzo osoa guztiz hunkituta zegoen.

Urtarrilaren 12an, arratsaldean, ospatu zen elizkizuna Karmelo eleizan eta ondoren, bertako plazan omenaldi hunkigarri bat eskeini zitzaien. Azken agurra eman zieten santutxutarrek, negar artean baina tinko, gazte hauek utzitako hutsunea betetzeko gogoz: "Etorikizuna gure esku dago, itzaropena baldin badaukagu". Omenaldia bukatzean, "lepoan hartu eta segi aurrera" kantatuz eramán zituzten Derioko hilerrira. Luze egin zitzaien Mikel eta Asierren senide eta lagunei hauen gorpuak azaldu arteko denbora. Hainbat ahalegin egin zen, hainbat medio ipini eta hainbat buelta egin batera eta bestera lehenbailehen aurkitzeko. Ezin da esan aferrikakoak izan zirenik baina samina asko laburtzerik ez zuten lortu. Agertu ondoren, bakoitzari bere omenalditxoa egin zitzaion Santutxura heldu zirenean.

Ekainaren 10ean gazteen errautsen parte bat Dima gaineko Urrekoatxan aideratu zuten eta beste bat Elantxobeko Ogoñon uztailaren 30ean.

Santutxu auzoan bi ekintza aipagarri egin ziren gazte hauen omenez: Batetik Santutxu Futbol taldeak eskeini ziena (Asier, bertako gazte taldean ibilitakoa zen) eta bestetik Gazte Asanbladak antolatu zuen astea maiatzaren hasieran, hirtzaldi, diapositiba emanaldi eta kontzertu baten bidez. Gehiago ere egon ziren baina hemen guztiak aipatzea luze joango litzateke.

Entzun ziren eritziak.

El guarda del refugio de Respomuso (Toni) les recomendó no salir del refugio ese día (6 de enero), les imploró que le notificasen su llegada al embalse de La Sarra a través de una llamada telefónica (Correo, 10 de enero de 1995).

En este Lugar del Pirineo oscense existe mucho riesgo de avalanchas de nieve, sobre todo si ha habido nevadas recientes como parece el caso. Pero ese riesgo existe en muchos otros sitios. El comportamiento de los desaparecidos fue el que tendría cualquiera. Si el mal tiempo te coge en el refugio, todo el mundo decide bajar. Otra cosa es que quizás pudieran haberlo hecho de uno en uno, pero también es normal que descendiesen agrupados. Una avalancha coge a seis o a dieciseis, pero es algo que le puede pasar a cualquiera. (Juanjo San Sebastián en El Mundo del 10 de enero de 1995).

Todos los expertos coincidían ayer en afirmar que esta tragedia "ha sido un golpe cruel de mala suerte", que podía haber sorprendido al mejor de los escaladores profesionales. "No creo que hayan llegado a transgredir ninguna norma básica. Había un riesgo y lo asumieron e iban muy bien equipados para hacerlo", opinó un miembro de la Federación Vasca de Montañismo. "Normalmente los aludes se producen más tarde. Han tenido mala suerte y les ha tocado a ellos, otra gente había andado antes por allí y no les había pasado nada" (Heraldo de Aragón del 11 de enero de 1995).

Juan Manzano, vocal de Socorro de la Federación Española de Deportes de Montaña y Escalada, pidió que "entre todos demos la mayor difusión posible para prevenir nuevos accidentes, lanzar un mensaje, aunque ahora la tristeza nos embarga". Animó a los montañeros a que se federen, "porque es donde te van enseñando el medio en el que luego te vas a mover". (Diario del Alto Aragón, 11 de enero de 1995).

Según fuentes de la Federación Vizcaína de Montañismo, sólo Arrizen González tenía licencia del organismo federativo viz-

caño. "En estos momentos de dolor, especialmente de los familiares, nos acordamos de lo que realmente vale el estar federado", manifestó Iriondo, Presidente de la Federación Vasca de Montañismo. (Diario del Alto Aragón, del 11 de enero de 1995).

Los familiares de los montañeros vascos desaparecidos en el Pirineo aragonés han optado por no hacer declaraciones animados, entre otras cosas, por quienes escudados tras la aparente patente de corso de ejercer de periodista han burgado con imprudencia en esta herida abierta. "Cómo pueden preguntarme que a qué venían nuestros hijos aquí, que cuáles eran sus intenciones. Siento que algunas veces pierda las formas pero es que a más de uno conviene cogerle de la solapa, sentarle y decirle." De ahí no te muevas hasta que aprendas bien tu oficio. Regla número uno: Respetar a los demás", señalaba el padre de uno de los fallecidos. (Deia, 11 de enero de 1995).

Hausnarketarako puntu batzuk.

Mendizaletasuna ez da aspaldiko gauza. Gizakia mendian betidanik ibili izan dela oso ondo dakigu arren, mendira igotzeko zaletasunak ez ditu urte asko; adibide bezala gogora dezagun Mont Blanc-eko gailurra 1786. urtean zapaldu zutela lehendabizikoz. Eta hurbilago etorriko bagina orain dela 61 urte sortu zen Elgetan

Euskal Mendizale Federakundea. Beraz, azkenaldiko kirola da mendizaletasuna. Hala ere, oso denbora laburrean asko zabaldu da eta, batez ere, goi-mailara heldu dela esan daiteke.

Mendizaletasuna ulertzen ez duen jenderik ere ez da falta. Hara goraino igo ondoren jaisteko, nekatu, egarriak jota ibili, zer ez dugun entzuten mendizaleok batzuetan! Baina mendizaletasuna arriskutsua bihurtzen denean, orduan bai entzun behar izaten dugula.

Zer egiten dute sei gaztek, negu gorriian, elur artean, Pirineotan? Nola bururatzen zaie Balaitus puntara igotzea urtarrean?



*Zenbat une on etortzen diren
bibotzeko saminean,
oraindik ikus zaitzaketegu
mendirantzako planean.
Gure kaltera lotu zarete
beraren aldamenean,
baina argi bat daukagu samin
honen jasanezinean,
sei izar piztu dituzuela
Pirineoen gainean.*

Erantzun ulerkorrak ematea mendian ibiltzea atsegin ez duen bati ez da lan makala. Baina jaisterakoan izan zuten istripuaren ondoren, oraindik zailago. Mendizaleok onartu behar dugu, eta onartzen dugu, nola ez!, kirol honek duen arriskua.

Pirineoetako mendi batzuk neguan zailak dira, Balaitus adibidez (udan ere ez da erraza). Gazte hauetako batzuk inguru hoietan ibiliak ziren, baina Balaitus-era igo gabe bihurtuak (mendizaleoi geratzen zaigun arantzaxoa) eta beste batzuk lehenengoz joanak ziren itzelezko ilusioarekin.

Mendizale batek badaki kirol honek badituela arriskuak, mendi batzuetan gehiago, bestetan gutxiago, urte sasoi batzuetan gehiago beste batzuetan baino, eguraldi txarrarekin gehiago... Garbi dago ez zirela arriskuaren bila joan. Mendia zuten atsegin eta maite. Balaitus-era igo nahi zuten. Ilusio horrekin joan ziren. Zer egin zuten, bada, txarto horrela amaitzeko heuren ilusio guztiakin? Mendian asko ibiliak ziren, batez ere laukote zaharragoa. Mendian esperientzia bazuten, eta ez bakarrik udan, baizik eta neguan eta elurretan ere bai. Hauetako batzuk Mont Blanc-en egonak ziren, Pirineoetan askotan ibili ziren, bai udan zein neguan. Lehen esan bezala, Balaitus bera neguan igotzea ez da erraza.

Egia da eguraldi oso txarrarekin irten zirela aterpetik. Bertako zaintzaileak ere esan zien hobe zutela ez jaistea. Hala ere jeitsi egin ziren. Erabaki honekin batera arriskutan ipini zituzten bere biziak. Hau gure zorte onarekin jolasean ibiltzea ote? Agian hala da, baina nork ez du egin holakorik bere bizitzan momentu edo egoeraren batean? Hau horrela da eta ez zaio buelta gehiago eman behar. Aterpean geratzea erabaki hobea izango zela badakigu. Erabakiak hartu egiten dira une batean, bere arrisku eta guzti, eta batzuetan ondo irtetzen dira eta beste batzuetan ez.

Argi dago pentsarazi behar digula holako istripu batek eta ondorio batzuk ateratzen saiatu behar dugula, hurrengo batean, ahal bada, horrelakorik gerta ez dadin. Mendiari errespetua

euki behar zaio. Baditu berezko arrisku batzuk eta hoiak ez dira ahaztu behar.

Mendira ondo prestatuta joan behar dugu, bai fisikoki zein sikikoki. Errota egokia eraman behar da. Eguraldia txarra denean, kontuz ibiltzeko lekua da mendia. Mendira neguan joaten bagara, askoz kontu gehiago eskatuko digu.

Goi-mailako mendietara joan ezker, oso ondo dago aurrez ikastaro batzuk egitea (urtero, asko eta era askotakoak antolatzen ditu Euskal Mendizale Elkaketeak). Federatuta egotea komenigarria da, batez ere istripuetarako aseguru bati zatearren; gainera mendiko aterpetan gutxiago kobratzen dute.

Hemen aipatu ditut kontuan hartzeko puntu gutxi batzuk. Honetaz liburuak ere badaude eta ondo legoke mendizale batek irakurtzea.

Badago beste puntu bat aipatzeko modukoa: Sei mendizaleak Santutxukoak zirenez, inguruan sortu duen elkartasuna azpimarratzekoa da. Asko laguntzen du aurrera jarraitzeko, itxaropenez begiratzeko etorkizunari. Sei gazteen familiek ere bat eginda egon dira, elkarren arteko babesean hobeto pasatzeko honelako tragu triste bat.

Gazteak ziren, ez dugu ahaztu behar. Helduok Xabier Leteren hitzak lasaiago entzuten ditugu: "Ez nau izutzen negu hurbilak... Ez nau iluntzen baratzatikan azken loreak biltzeak... amets beteko loa baitakar behin betirako hiltzeak". Sei mendizaleen

lagunentzat kolpe gogorra izan da. Hala ere etorkizunari begira itxaropenez beteta gaude.

Mikel Garmendia